

LANBIDE SANITARIOEN ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO EUSKAL KONTSEILUA

2003KO JARDUEREN MEMORIA

Ohiko batzarrak

Ebaluazio Batzordeak 15 bilera egin ditu. Bilerok, eskabideen ugaritasun-erritmoa kontuan hartuta egin dira. Osoko Bilkura, kide berrituekin, apirilean batzartu da eta Batzorde Iraunkorra urrian egin da. Aldaketa horien emaitza gisa, azarotik aurrera, Ebaluazio Batzordeko lehendakari lanetan Irakaskuntzako eta Garapen Profesionaleko burua arituko da.

Azaroaren amaieran, gainera, ebaluatzaileekin lan-bilerak egin dira.

Jardueren egiaztapena

2003. urtean 302 eskabide jaso dira. Jasotako 302 eskabideetatik, 161 lehenengo edizioak izan dira (%53) eta 141 hurrengo edizioak (%47). 241 egiaztatu dira (%80), 31 ukatu dira (%10), 11 ez dira onartu epez kanpo aurkeztu direlako (%3,6) eta 11 (%3,6) hornitzaileak baztertu ditu, 1 beste Etengabeko Prestakuntzako Batzorde batera bidali da eta 8 (%2,5) erabakitzeke zain daude jarduera masiboak direlako eta 2004an garatu direlako, 2003. urtean aurkeztuak izan arren. Jarduera-mota horrek ez du behin betiko egiaztapenik jasoko, harik eta bukatu arte.

HELBURUKO POPULAZIOA	EGIAZTATUTAKO JARDUERAK	UKATUTAKO JARDUERAK	ONARTU GABEKO JARDUERAK	BAZTERTUTAKO JARDUERAK
MEDIKUNTZA	67	5	1	
ERIZAINNTZA	94	15	5	3
FARMAZIA	26	1	1	
MULTIDIZIPL.	50	10	2	7
ODONTOLOGIA	2		2	
ETE	1			
PODOLOGIA	1			
FISIOTERAPIA				1
GUZTIRA	241	31	11	11

Ukatutako egiaztapenei dagokienez, guztiak (31) izan dira lanbide sanitarioentzat etengabeko prestakuntzatzat ez jotzeagatik. Aurreko urteetan kontuan hartutako irizpideetan (osasun-zientzietan espezifikokoak ez diren gaiak, langilearen autozainketan edo enpresaren antolaketa-alderdietan arreta jarri duten edukiak) oinarrituta, 8 egiaztapen ukatu dira urriaren bukaerara arte, Batzorde Iraunkorrak irizpideen aldaketa onartu zuenean, hain zuzen ere. Honako hauek izan dira ukapenaren beste arrazoi batzuk: prestakuntza arautua izateagatik (8), xede-populazioarentzat bereizleak ez diren gaitzat hartzeagatik (8), izaera dibulгатzailea

edukitzeagatik (4), terapia alternatiboei buruz aritzeagatik (2) eta programa informatikoagatik (1).

Eskabiderik gehien aurkeztu duen **talde profesionala**, aurreko urteetan bezala, erizaintzakoa izaten jarraitu du (%39); ondoren, medikuntzakoa dator (%24,5), bere jarduera nabariki gehitu duena, farmazia (%9), mantendu egiten da; eta azkenik, odontologia (%3) agertzen da. Diziplina anitzekoek %23,5a adierazten dute eta fisioterapeutek eskabide bakar bat aurkeztu dute. Aurten, lehendabiziko aldiz, podologoentzako jarduera bat egiaztatu da, dagoeneko sisteman sartuta egon arren, orain arte eskabiderik aurkeztu ez baitute, eta beste bat erradiodiagnostikoko teknikarientzat, egiaztatu daitezkeen lanbideak gehitzeko erabakiaren ondoren.

Egiaztatutako jardueren %100a presentziazkoak izan dira. Ez da bertaratu gabekoa den jarduerarik egiaztatu (ezta eskabidea aurkeztu ere). **Jarduera-motari** dagokionez, egiaztatutako jardueren %12,5a kongresuak eta jarduera parekagarriak (iraupen laburreko masiboak) izan dira eta gainerakoa, %87,5, ikastaroak edo antzekoak (tailerrak, mintegiak).

Egiaztatutako jardueren %77,6ak 21 orduetik beherako **iraupena** izan du, %19,5ak 21 eta 40 ordu arteko iraupena, %2ak 41 eta 80 ordukoa eta %0,9ak 80 ordu baino gehiago iraun du. Irakastordu-kopuruaren banaketa asimetrikoa izan da: gutxienez 1,5 ordu eta gehienez 100 ordu.

Egiaztatutako jardueren %40ak 21 eta 30 bitarteko **partaide-kopurua** begiesten du. Gainerakoa oso aldakorra da: gutxienezkoa 15ekoa da eta gehienezkoa 270ekoa. %26ak 21 ikasle baino gutxiago izan du, %16ak 31 eta 40 artean, %4ak 41 eta 50 artean, eta %14ak 50 baino gehiago.

Egiaztatutako jardueren **osagai kualitatiboari** dagokionez, jardueren %73a 1,4 eta 2,2 bitartean aurkitzen da. %17a 1,4ren azpitik dago, eta batez ere iraupen laburreko jarduera masiboei dagokie. %10a 2,2tik gora aurkitzen da. Gehienezkoa 2,58an dago, eta gaur arte jarduera batek lortutako osagai kualitatibo altuena da.

Egiaztatutako jardueren %65a **arlo** klinikoari (atentzio zuzena) dagokio lanbide guztietan (%88 medikuntzan, %68 erizaintzan, %77 farmazian), salbu, logikoki, diziplina anitzeko jardueretan (%22). Klinikokoak ez diren arloen artean (zeharkakoak), honako arlo hauetan kokatzen diren jarduerak egiaztatu dira: kudeaketa (%25), etika-legeria (%17), ebidentzian oinarritutako medikuntza (%16), komunikazioa (%13), prestakuntza (%10), ikerkuntza (%6), kalitatea (%6), estatistika (%3,5) eta osasun-hezkuntza.

Aurtengo **hornitzaile** nagusia Profesionalen Elkargoak izan dira, eskabideen %40arekin, horien atzetik Osakidetza %38rekin (Zerbitzu Zentralak, Ospitaleak, Ikerkuntzako Unitateak eta Irakaskuntzako Unitateak).

ENTITATE HORNITZAILEA	EGIAZTATUTAKO JARDUERA- KOPURUA
OSAKIDETZA-ZERBITZU ZENTRALAK	48
BIZKAIKO ERIZAINZAKO ESKOLA	30
DERMATOLOGIAKO ESPAINIAKO AKADEMIA	23
BIZKAIKO FARMAZIALARIEN ELKARGOA	17
GIPUZKOAKO ERIZAINZAKO ESKOLA	16
GASTEIZKO ERIZAINZA ESKOLA	11
OSASUN SAILA	10
OSASUN IKASKUNTZA FUNDAZIOA	9
GURUTZETAKO OSPITALEA	7
ARABAKO ERIZAINZAKO ESKOLA	6
GIPUZKOAKO FARMAZIALARIEN ELKARGOA	6
GIPUZKOAKO MEDIKUEN ELKARGOA	5
DONOSTIA OSPITALEA	5
LEHEN MAILAKO ATENTZIOKO IKERKUNTZAKO UNITATEA (BIZKAIA)	5
MEDIKER-POLIKALTE	4
SANTINVEST (SANTIAGO OSPITALEKO IKERKUNTZA ELKARTEA)	3
ARABAKO FARMAZIALARIEN ELKARGOA	3
ARABAKO MEDIKUEN ELKARGOA	3
BIOTECHNOLOGY INSTITUTE I MAS D, S.L.	2
SYCOM TRAINING SYSTEMS	2
ZUMARRAGAKO OSPITALEA	2
ARABAKO IKERKUNTZAKO UNITATEA	2
GALDAKAOKO OSPITALEA	2
SANTIAGO OSPITALEA	2
ANESTESIA ETA BIZKORKETAKO EUSKAL ELKARTEA	2
EUSKAL HERRIKO PEDIATRIA ELKARTEA	2
UMADE FORMACION	2
FUDEN (ERIZAINZAREN GARAPENERAKO FUNDAZIOA)	2
MEDIKUNTZA ZIENTZIETAKO AKADEMIA. NEFROLOGIA ATALA	1
PEDIATRIAKO ESPAINIAR ELKARTEA	1
URIBE ALDEKO GURUTZE GORRIA	1
TXAGORRITXU OSPITALEA	1
BEHARZENA (SANTIAGO OSPITALEKO INTENTSIBISTEN ELKARTEA)	1
EUSKADIKO PODOLOGOEN ELKARGOA	1
AGURE FORO GERIATRIKOA	1
BASURTUKO OSPITALEA	1
ARTERIA-HIPERTENTSIO ETA ARRISKU BASKULARRAREN SOZietatea	1
HIPERTENTSIO ARTERIALAREN EUSKAL ELKARTEA	1